



BURUNZPE

SASOETA-ZUMABURU
GURASO ELKARTEA

AMPA DE
SASOETA-ZUMABURU

GOIZ TXOKO ZERBITZUAREN BARNE ARAUDIA

OROKORTASUNAK

GOIZ TXOKOA Guraso Elkarteak antolatzen duen zerbitzua da. Eskola hasi aurretik seme-alabak eskolan utzi behar dituzten familiei eskaintzen zaie, familia eta lana uztartu ahal izateko.

Izen-ematea online bidez egingo da: Guraso Elkartearen web orrian www.burunzpe.net -ko "Goiz Txoko" atalean sartu eta "IZENA EMATEKO FORMULARIOA" botoian klik egin ezazu..

ORDUTEGIA

Goiz Txokoko ordutegia 8:00etatik 9:00etara izango da, baina antolaketa dela eta, ezin izango dira haurrak 8:50etatik aurrera utzi.

Familiei gogorarazten zaie lehen eskola-egunean ez dagoela goiz txoko zerbitzurik.

KUOTAK

Bi prezio ezberdin daude, bata Guraso Elkarteako bazkideentzat eta bestea bazkide ez direnentzat eta zerbitzua erabiltzen den egun kopuruaren arabera.

- Hilabete osoan egun bakarra: 15€ bazkideak / 25€ bazkide ez direnak.
- Hilean aste bakar bat edo gehienez 5 egun solte: 25€ bazkideak / 40€ bazkide ez
- Maiz erabiltzea (hilean 5 egun baino gehiago): 45€ bazkideak / 70€ bazkide ez direnak

ORDAINTZEKO MODUA

- Banku-helbideratze bidez kobratuko da zerbitzua. Izen-ematean eman diguzuen kontutik egingo da kobrantza.
- Kobrantzak hileroko egingo dira, hilabetea amaitu ondoren, eta, ziur aski, hurrengo hileko lehen astean.
- Goiz Txokoko barne araudia/protokoloa onartuz, onartzen duzue, baita ere, ordainagiriak bidali ahal izatea emandako kontura, jasotako zerbitzuagatik ordaintzeko helburu bakarrarekin.

Kontuan, saldirik ez dagoelako, zerbitzua kobratzerik ez badago edo ordainagiria itzulita izan bada, familiak transferentzia bat egin beharko du IGEren kontura, zor den zenbatekoarekin gehi ordainagiria itzultzeagatik kargua barne, ordaindu ez izanaren jakinarazpena jaso eta 7 eguneko epean.

Transferentzia Nafarroako Rural Kutxako IGEaren kontu honetan egin beharko da (ES21 3008 0148 6832 8973 4828 zenbakia), IKASLEAREN IZEN-ABIZENAK, IKASTAROA eta HILABETEA eta "GOIZTXOKO" adierazita.

Egin ezean, ordaintzeke dagoen ikaslearentzako zerbitzua eten egingo da egoera zuzendu arte.

Helbideratutako ordainagiria itzultzeagatik kargua edo komisioa 2 €-koa da

*Si deseas contactar con nosotros puedes hacerlo en
goitzxoko@burunzpe.net*



BURUNZPE

SASOETA-ZUMABURU
GURASO ELKARTEA

AMPA DE
SASOETA-ZUMABURU

ESKAERA GEHIEGI IZANEZ GERO

Lehentasuna izango dute, orden honetan:

- Aurreko ikasturtean zerbitzu hau erabili duten ikasleak.
- Zerbitzua maiz erabiltzen duten ikasleak.
- Anai-arrebaren bat zerbitzua erabiltzen duten ikasleak.

Baldintza berdinetan ikasle gehiegi badaude, plazak zozketatu egingo dira.

ARAUDIA

- Sasoeta-Zumaburuko ikasle guztiek erabili ahal izango dute zerbitzua.
- Zerbitzua erabiltzeko ezinbestekoa izango da guraso elkartearekin zorrik ez izatea.
- Goiz Txokoa erabiltzen duten hurrek heldu batekin joan beharko dute bertara eta begiraleei utzi.
- HH2 ikasten ari diren haurren familiek egokitze-aldian zerbitzua erabili nahi badute, irakasleari eskatu behar diote mezu elektronikoa bat bidaltzeko goitzoko@burunzpe.net helbidera, eta han adierazi behar dute haurra guztiz egokituta dagoela.
- Oraindik haur-oihala erabiltzen duten haurren familiek, haur-oihalak eta paper-zapiak eraman beharko dituzte zerbitzua erabiltzen duten lehen egunean eta zerbitzuko begiraleek eskatzen dietenean ere.
- Zerbitzua erabiltzeak Barne Araudi honetan edo Protokoloan adierazitako baldintzak onartzea dakar.
- Zerbitzu hau zentroan ematen da, beraz ez da zentroaren jardueratik eta plangintza orokorretik bereizi behar. Horrek esan nahi du bere antolaketa, jarduerak, metodologiak, etab. Guraso Elkartearen eta ikastetxeko zuzendaritzaren artean koordinatuko direla.

*Si deseas contactar con nosotros puedes hacerlo en
goitzoko@burunzpe.net*



BURUNZPE

SASOETA-ZUMABURU
GURASO ELKARTEA

AMPA DE
SASOETA-ZUMABURU

ESKOLAZ KANPOKO JARDUERETAN PORTAERA TXARRA IZATEAGATIK JARRAITU BEHARREKO IRIZPIDEAK:

- Erabat debekatuta dago ikaskideekin, begiraleekin eta abarrekin jokabide edo jarduera erasokor, umiliagarri edo umiliagarririk izatea: ahozkoa zein fisikoa.
- Monitoreak haurrari lehenengo arreta deiarin ondoren guraso elkarteak haurraren gurasoekin harremanetan jarriko da ohar idatzi baten bidez, eta lehenengo hutsegitez hartuko da. Larritasunaren arabera, hutsegite hori arintzat edo larritzat hartuko da.
- Hiru hutsegite arin edo larri bat eginez gero, haurra denbora jakin baterako edo erabat goiz txoko zerbitzutik kanporatua izan daiteke, baina soilik egondako denbora ordaindu beharko du.
- Guraso Elkarteak ez du bere gain hartzen umeek altzari edota tresna pertsonaletan eragindako kalteen erantzukizuna, eta ondorioz, gurasoen gain geratzen da erantzukizuna.

Goiz txokoko monitoreak, Zuzendaritza Batzordeak eta Eskolaz kanpoko Batzordeak egoki iritzitako irizpideak ezarri dira, gertaeren larritasunaren arabera.